

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

Nafarroako Gobernuak proposamen berriak prestatu ditu urriaren hogeita bitik hogeita zortzira: kontzertuak, dantza, zinema, tailerrak, erakusketak eta bisitak

Astelehena, 2018.eko urriak 22

Zinemaz gozatzeko aukera galanta egongo da [aste honetan](#) Nafarroako Filmotekan eskaintza anitz zein bereziarekin: asteartean “Sicixia” filma eskainiko da; asteazkenean David Lean omentzen duen zikloak aurrera egingo du “Breve encuentro” lanaren erakusketarekin; ostegunean berriz, Punto de Vista jaialdiak hartuko du lekukoa eta hilabetero egiten duen proiektioaren harira, “Memoria oculta” pelikula plazaratuko du. Bukatzeko, ostiralean, Palestinan egiten den lanaren lagin bat aurkeztuko da “Bajo el cielo” eta “La piedra sagrada” filmekin. Saio guztiak arratsaldeko zortzietan hasiko dira.



Ana García Caraballos eta Jose Luis Echechipiak kontzertua eskainiko dute larunbat honetan, Nafarroako Organo zikloaren baitan.

Musikari dagokionez, Organo Musika Nafarroan zikloak bi musikari jantzi eta treberen arteko soinu topaketa antolatu du. “Sintonizando infrecuencias” izenpean Ana García Caraballosek eta José Luis Echechipiak doinuen arteko elkarrizketa musikal bat eskainiko dute San Nikolas Elizan arratsaldeko seietan. Era berean, Baluarte Jauregian Txaiikovskiren “Intxaur-hauskailua” inoiz ez bezala gozatzeko aukera bikoitza izanen da: Dantza Konpainia Nazionalak gauzatuta eta José Carlos Martinezen koreografia berriaren estreinaldiarekin. Gainera, musika Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren esku izanen da. Ikuskizuna ostiral eta larunbatean izango da arratsaldeko zortzietan. Azkenik, musikaren eskaintza biribiltzeko, Cubatik datorren Entrevoces abesbatza Zizur Nagusian arituko da igandean.

Formakuntzaren alorrean Huarte Zentroak hamaika proposamen prestatu ditu datorren asterako. Aurretik martxan zeuden ekintzetatik haratago, “Periferia Birpentsatu Etxabakoitzen” proiektua eta “Sol y sombra” proposamena, badago non aukeratu: zentroak atek zabalduko ditu eta bere eremuak erabiltzen ikasteko tailerrak eskainiko ditu batetik, astelehenean eta arratsaldeko lauetan. Bestetik, Huarten lan egiten duten

sortzaileen lana ezagutzeko aukerak egongo dira larunbat eta igandean "Aperitifak + Akanpada" izenpean. Gainera, Sorkuntza Gaztea Arte Garaikidea – Itzal Aktiboa Saria jaso duten obrak ikusgai egongo dira Gazte Artea Garazin erakusketaren eskutik. Bukatzeko, asteazken eta igandean Huarte Zentroak Vaca proiektuaren zazpigarren edizioa jasoko du Marruka izenburupean.

Nafarroako Liburutegiak eskaintza aberatsa antolatu du ere bai. Asteazkenero ospatzen den haurrentzako "Ongi etorri ipuinetara" tailerraz gainera hauek dira proposamen berriak: astelehenean eta arratsaldeko zazpitan Víctor Gómez Pinek "Zein zentzutan erlatibizatzen du Mekanika Kuantikoak filosofia?" hitzaldia eskainiko du; Halaber, asteartean eta arratsaldeko zazpitan, Trantsizioak zikloaren barruan Juan Pablo Fusik "Eremu askatasundunak" konferentzia aurkeztuko du. Bukatzeko, asteazkenean eta arratsaldeko seietan, Regina Salcedok poema errezital bat eskainiko du "Mujer Varada" liburuan bildu dituen idatziak irakurriz.

Erakusketen eskaintzari begira, Oteiza Museoan "Macla, mamua, bismuto, vicario" proposamena bisita daiteke eta Nafarroako Errege Artxibo Nagusian "Isidoro Fagoaga Larrache (1893-1976)" eta "Baxenabarre, lurralde berezia" erakusketak izango dira ikusgai. Gisa beran, Nafarroako Gobernuako Administrazioaren Artxiboak omenaldia egin nahi die Nafarroako hainbat arkitektoei. Hori dela eta "Arkitektura eta Arkitektoak: Arraiza-Esparza-Gaztelu, 50 urte geroago" erakusketa antolatu du.

Bere aldetik, Nafarroako Museoak marketinaren inguruko hitzaldia luzatuko du Marga Meoro adituaren eskutik, "Kultura zabaltzeko trebetasuna". Lizarrako Karlismoaren Museoari dagokionez, paisaien argazkigintzan trebatzeko tailer bat eskainiko da larunbatean, goizeko 11ketan hasita eta arratsaldeko 13ak arte.

Bukatzeko eta beste aste batez, larunbat eta igandean, Tuterako Katedralaren Judizioaren Atean egiten ari diren zaharberritze-lanak ezagutzeko aukera zabaldu da. Era berean, igandean eskaintza hirukoitza egongo da Iruñeko Katedraleko Klaustroan egiten ari diren konpontze lanak bisitatzeko.